

Jarduera komertzialaren eta banku-negozio tipikoaren bilakaera funtsezkoak izan dira

## **Kutxabankek 110,7 milioi euroko irabazia izan du lehen hiruhilekoan**

- Banku-negozioaren ohiko diru-sarrerak % 30 inguru hazi dira, interes-marjinaren bilakaeraren eta aseguruaren negozioaren ondorioz, azken honek emaitzen kontuan 36,2 milioiko ekarpena egin baitu
- Inbertsio-funtsetan harpidetza garbi handienak izan dituen bigarren taldea da, sarrera berri guztien % 15 hartuta
- Familientzako kredituetan, merkatuaren batez bestekoaren gainera hazi da hipoteken jarduera, eta % 22 kontsumorako kredituak
- 1.000 milioi baino gehiago sinatu dira formalizazio berrietan Enpresetako eta Korporazioetako Bankan
- Berankortasun-tasa % 1,4koa da, berriro ere alor osoko onena
- CET1 fully loaded ratioa oinarrizko 24 puntu hobetu da hiruhilekoan, % 17,4ra arte

**2023ko apirilaren 27an.** Kutxabank Taldeak **110,7 milioi** euroko irabazi garbia lortu du aurtengo lehen hiruhilekoan, 2022ko martxoaren amaieran baino % **47,3** handiagoa, bankuei ezarritako **zerga bereziarengatik 47 milioi euro bere gain hartu eta gero.**

Hiruhileko honetan Silicon Valley eta Credit Suisse bankuen krisialdiak gertatu eta krisialdiak berehalako eragina izan du, Europako bankuen balorazioek ondorioak sumatu baitituzte. Nola nahi ere, beren finantza sendotasunari, kaudimen handiari eta likidezia-posizio onari esker egoera gaitztea lortu dute.

2023rako hazkunde aurreikuspenak apurka-apurka hobetzen joan dira, 2022ko itxiera espero baino hobea izan delako, enpleguak dinamismo handiagoa duelako eta inflazioari eustea lortu delako, nahiz eta oinarrizko inflazioak gora egiten jarraitzen duen, familien gaineko presioa handituz.

Finantza-merkatuek hazkunde nabaria izan dute urteko lehen hilabeteetan, eta horrek eragin positiboa izan du Erakundeak kudeatzen dituen aktiboen balorazioetan.

Testuinguru horretan, Kutxabanken emaitzak **banku-negoio tipikoaren** bilakaeran oinarritu dira, % **29,3** hazi baita, batez ere interesen marjinak bultzatuta, azken honek % 70 egin baitu gora iazko aldi berarekin alderatuta, alegia, interes-tasen normalizazioa hasi gabe zegoenean.

Urte hasierako beste ezaugarri nabarmenetako bat jarduera-komertzialaren bizitasuna izan da, hau da, Kutxabankek eskaintzen dituen **zerbitzu eta produktuen kontratazioarena**. **Hipoteketan, kontsumorako kredituetan eta enpresei** finantzatzeko ekoizpen berrian bankuaren aurreikuspenak gainditu egin dira, nahiz eta lehiakortasun handiko testuinguruan izan.

**Balantzetik kanpoko baliabideetan**, Kutxabankek bere merkatu-kuotak handitzen jarraitu du, eta **harpidetza garbi handienak** lortu dituen bigarren erakundea izan da berriro ere, merkatuko sarrera garbi guztien % **15** bereganatuta.

Kutxabankek online aritzeko geroz eta ohitura handiagoa duten bezeroen beharrei erantzuten jarraitu du, eta hazten jarraitu du zerbitzu horretara sartzen diren erabiltzaileen kopuruak. Gaur egun, bezero guztien % **61** erabiltzaile digitalak dira. Kutxabanken online banka eta banka mugikorra produktuak eta zerbitzuak kontratatzeke modu estrategiko finkatu dira, eta dagoeneko **kontratu guztien % 40 inguru** kanal hauen bitartez sinatzen da. Honela, nabarmentzekoa da **online** egiten dela **zorroen eta inbertsio funtsen kontratazioaren % 30**.

## Jarduera komertzial bizia

Urteko lehen hiru hilabeteetan, kreditu-inbertsioak bere ohiko kemenari eutsi dio, eta hazkunde nabarmena izan dute **enpresei eta partikularrei emaniko finantzaketak**, nola **aseguruen** bilakaerak.

Enpresa txiki eta ertainen beharretarako finantzaketak azken hilabeteetan izan duen joera positiboa baieztatu egin da 2023. urtearen hasieran, formalizazio berrietan **550 milioi** euro sinatu baitira. **Zirkulatzailerak finantzatzeko** eragiketak % **4,7** hazi dira, eta nabarmena izan da **deskontu komertzialaren % 2,6**-ko igoera.

Hipoteka-kredituen merkaturan tipoen gorakadak eragin argia izan du, Kutxabank aritzen den zonalde guztietan etxebizitzaren salmentak behera egin baitu. Hala ere, Kutxabank Taldeak bere jatorrizko lurraldeetan duen lidergoa sendotzen jarraitu du.

Kutxabankek guztira **836 milioi** euro bideratu ditu hipoteka kreditu berrietara, Erakundearen aurreikuspenen gainetik.

**Kontsumoko kredituen** merkatuak marka berria ezarri du, **% 22ko** hazkundea izan baitu, eta **% 50eko** ezohiko igoera **merkataritza maileguetan**, merkataritzako alorraren fakturazioa sendo dabilen erakusle.

Kutxabank Seguros-ek **37.000 poliza** berri inguru banatu ditu 2023ko lehen hiruhilekoan.

Bereziki azpimarragarriak izan dira **auto aseguruaren** bilakaera, salmentak **% 150** hazita, eta **errenta aseguruena**, interes tasen igoeraren ondorioz. **Kontsumoko maileguekin konbinatuta** egiten den ekoizpena **% 11,5** igo da eta **Arrisku Anitzeko Enpresena % 22,4**.

Kutxabank Segurosek **923.000 poliza** ditu guztira, eta jarduera horrek **36,2 milioi** euroko diru-sarrerak ekarri dizkio hiruhileko honetan Taldearen emaitzen kontuari.

## Hiruhileko ona balantzetik kanpoko baliabideetan

Finantza merkatuentzako ona izan da hiruhilekoa, eta ondorioz Kutxabankek **kudeatzen dituen bezeroen baliabideak % 4,1** hazi dira, **76.106 milioi** euroraino.

Kutxabank Taldea inbertsio funtsetan **bigarren harpidetza garbi gehien izan duen erakundea** da, guztira **1.472 milioi** euro bereganatuta, merkatuko sarrera berri guztien **% 15**.

Taldeak inbertsio funtsen merkatuan duen **kuota hobetzen jarraitu** du, oinarrizko 29 puntu, bezeroentzako finantza-laguntzan erreferentea baita. Horrez gain, Kutxabank Gestion merkatuko **hirugarren errentagarritasun handiena** duen kudeatzaile kokatu da.

**Kutxabank Taldeak 23.700 milioi** eurotik gora administratzen ditu gaur egun inbertsio funtsetan, eta **% 7,34ko** merkatu kuota du.

## 666 milioitik gora finantzazio jasangarrian

Taldeak guztira **248 milioi** euro bideratu ditu **Hipoteka Berdea** deritzonaren bitartez **energia eraginkorra duten etxebizitzak** finantzatzeko. Hori hipoteka-ekoizpen berri osoaren **% 30** da. Gainera, etxeok babesteko '**Aseguru Berdea**' dute, eta era honetako **poliza berrien** bolumena **% 2** hazi da iazko garai berarekiko.

Segmentu 'berdean' onartutako **kontsumorako kredituen** bolumenari dagokionez, **7,1 milioi** eurora iritsi da, 2022koaren hirukoitza baino gehiago.

Enpresetan eta erakundeetan espezializatutako dibisioek **411 milioi** euro baino gehiagoko eragiketak onartu dituzte **ekonomia berde eta jasangarriko** eragiketetan. Ekimen hauek energia berriztagarriak sortzeko eta bateratzeko proiektuak babesten dituzte, edo mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egiten duten jarduerak, etxebizitza sozialak, eta energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren higiezinak sustatzen dituzte.

Guztira, finantza Taldeak bere **jasangarritasun irizpideekin 666 milioi** euro baino gehiago bideratu ditu finantzaketan 2023ko lehen hiruhilekoan. Finantzazio jasangarri hau erakundearen barruko irizpideetan oinarritzen da, eta ez du halaberharrez EBko Taxonomiako Araudiarekin % 100 bat egin behar.

## Emaizten kontua

Emaizten kontuko **marjina nagusi guztiek** bilakaera ona izan dute.

Banku negozioaren **oinarrizko sarrerak** nabarmendu dira, % **29,3ko** hazkundera izan baitute, guztira **383,3 milioi** euro, batez ere **Interesen Marjinak** bultzatuta, **235 milioi** euro ingurukoa izan baita, iaz baino % **69,8** handiagoa.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikakorra, batez ere dibidenduen eta bazkidetuen emaitzaren bidez, **39,8 milioi** eurokoa izan da.

Ondorioz, **Marjina Gordina 366,6 milioi** eurotik gorakoa izan da.

Kutxabankek bere eraginkortasuna hobetzeko eta **ustiapen gastuei** eusteko **ahalegin handia** egiten jarraitu du eta, bien bitartean, hornidurak indartzen jarraitu du. **Ustiapen gastuak** % **4** handitu dira, pertsonalaren gastuen igoeraren eta kostu orokorren goranzko presioaren ondorioz, nahiz eta hazkundera KPI-aren bilakaera baino txikiagoa izan den. **Ustiapen Marjina 209,8 milioi** eurokoa izan da, % **39,9** handiagoa.

Taldeak egin ohi duen zuhurtziazko kudeaketaren ildotik, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboen **saneamendu** maila handiari eutsi zaio, arlo honetara **55,2 milioi** euro bideratu ostean.

Epealdi honetan bankuei ezarri zaien zerga bereziari aurre egiteko 47 milioi euro bideratu dira. Horren ondoren, Taldearen **irabazi garbia 110,7 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino % **47,3** handiagoa.

## Kutxabank Taldearen emaitzak, 2023ko martxoa

Miloi eurotan	2023ko martxoa	%Δ
Interesen Marjina	234,8	69,8
Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerak	148,5	-6,1
<b>Banka negozioaren core sarrerak</b>	<b>383,3</b>	<b>29,3</b>
Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	39,8	e.a.
Beste ustiapen emaitzak	-56,5	e.a.
<b>Marjina Gordina</b>	<b>366,6</b>	<b>21,9</b>
Ustiapen gastuak	-156,8	4,0
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>209,8</b>	<b>39,9</b>
Saneamenduak eta narriadurak	-55,2	-1,4
Beste irabazi eta galerak	3,9	-66,2
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>158,5</b>	<b>50,2</b>
Zergak eta bestelakoak	-47,9	57,3
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>110,7</b>	<b>47,3</b>

### Adierazle nagusiak hobetu egiten dira

Kutxabankekin finantza-sektore osoko **berankortasun-ratiorik onena** izaten jarraitzen du, batez bestekoarekin alderatuta 200 oinarrizko puntutik gorakoa baita. Indizea % **1,4koa** zen martxoaren amaieran.

Sarrera errepikakorrak sortzeko gaitasunarekin batera, eta gastuen bilakaerari esker, errentagarritasun adierazle nagusiak nabarmen hobetu dira. Honela, zerga bereziak bankuetan izan duen eragina aintzat hartu gabe, hiruhileko ROTE eguneratua % 8tik gora kokatuko litzateke, %0,7tik gora ROA eta eraginkortasun maila % 38an.

Kutxabankekin kaudimen posizio sendoa izaten jarraitzen du, % **17,4koa baita CET1 fully loaded**, hiruhileko honetan ratio **hau oinarrizko 24 puntutan** hobetu eta gero.

### Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako banku nagusia da. 700 bulego baino gehiago ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego sarea du eta Andaluzian, Madrilen eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gora osatzen dute Taldea. Europako ikuskatzaileen arabera gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.